

# EAEko I+G: 2024ko ikuspegia eta egoeraren diagnostikoa

2024ko martxoa



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

## 01. Sarrera

**Ikerketa eta garapen esperimentalak (I+G) berrikuntza sustatzeko jarduera nagusietako bat da. Zehazki, ezagutza zientifiko berria eta hazkunde ekonomikoa, jasangarritasuna eta bizikaltatearen hobekuntza bultzatzeko gai diren teknologia berriak sortzeko aukera ematen du. EAEn, enpresen berrikuntzako inbertsioen % 75 inguru da I+G.**

Haren garrantziagatik, eta I+Gko inbertsioari buruzko datu estatistikoek denbora-desfase esanguratsua dutelako (2023ko azaroan argitaratu ziren 2022ko datuak), Berrikuntzaren Euskal Agentziak, Innobasquek, EAEko I+G inbertsioaren urteko zenbatespena egiten du 2019tik. Ariketa hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasotako ebaluazio-funtzioaren parte da; lurraldeko berrikuntza-politikak bideratzen laguntzeko betetzen du Innobasquek funtzio hori.

I+Gko inbertsioaren zenbatespena honako bi erreferentzia hauek hartzen dituen estatistika-tresna batean oinarrituta kalkulatzen da: EAEko I+Grako aurrekontuak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak Barne-Produktu Gordinaren (BPGd) bilakaeraz egindako aurreikuspena, batetik, eta, bestetik, aldagai horiek I+Gko enpresa-finantzaketarekin duten korrelazioa. Ondoren, lortutako kalkulua EAEko I+Gko 18 trakzio-enpresaren talde bateko

aurreikuspenekin doitzen da; enpresa guztiak Berrikuntzaren Euskal Agentziaren bazkideak dira eta I+Grako enpresa-finantzaketaren % 40 ordezkatzen dute. Era berean, datu horiek BRTAko zentroek emandakoekin osatzen dira.

Bost ekitalditan, erregistratutako azken balioekiko zenbatespenen errore-marjinak 2020an baino ez zuen gainditu % 2,5, pandemia dela eta.

Seigarren edizio honetan, Innobasquek 2024rako I+Gko inbertsioa zenbatetsi du. Horretarako, 2022ko azken datu estatistikoak hartu ditu oinarritzat (2023ko azaroan argitaratuak) eta 2023ko datuen zenbatespena egin du.

Azkenik, Eustatek argitaratu berri dituen 2022ko datuak kontuan hartuta, EAEko I+Gren egoerari buruzko azterketa zehatza ere egin da.

# EAEko I+G: 2024ko ikuspegia eta egoeraren diagnostikoa

2024ko martxoa

## 01. EAEko I+Gko inbertsioaren zenbatespena

- Eraitza nagusiak
- Zenbatespenaren xehetasuna

## 02. EAEko I+Gri buruzko diagnostikoa

## 03. Eranskinak

# EAEko I+Gko inbertsioaren zenbatespena

2024ko martxoa

# 01

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

# EAEko I+Gko inbertsioaren zenbatespena

2024ko martxoa



## Emaitza nagusiak

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

**INNOBASQUE-K  
EGINDAKO ZENBATESPENA**  
(2024ko otsailean)

**Inbertsioak  
I+Gn EAEn  
2024an**

**2.068 M€**  
2024ko I+Gko inbertsioa

**+% 6,4**  
2023arekiko

**1.151 M€** ENPRESAK

**+% 6,4** 2023arekiko

**709 M€** ADMINISTRAZIOAK

**+% 6,6** 2023arekiko

**167 M€** NAZIOARTEKOA

**+% 6,5** 2023arekiko

**41 M€** BESTE BATZUK

**+% 2,7** 2023arekiko

**+% 6,9ko hazkundera  
zenbatetsi dute  
trakzio-enpresek  
2024an**

**INNOBASQUE-K  
EGINDAKO ZENBATESPENA**  
(2024ko otsailean)

**Inbertsioak  
I+Gn EAEn  
2023an**

**1.944 M€**

2023ko I+Gko inbertsioa

**+% 8,3**

2022arekiko

**1.082 M€** ENPRESAK

**+% 7,8** 2022arekiko

**666 M€** ADMINISTRAZIOAK

**+% 9,3** 2022arekiko

**157 M€** NAZIOARTEKOA

**+% 9,0** 2022arekiko

**39 M€** BESTE BATZUK

**+% 2,5** 2022arekiko

**+% 8,4 hazi ziren  
trakzio-enpresak  
2023an**

**EUSTAT-EN DATU ERREALAK**  
(2023ko azaroan)

**Inbertsioak I+Gn  
EAEn  
2022an**

**1.795 M€**

2022ko I+Gko inbertsioa

**+% 9,0**

2021arekiko

**1.004 M€** ENPRESAK

**+% 7,6** 2021arekiko

**609 M€** ADMINISTRAZIOAK

**+% 12,4** 2021arekiko

**144 M€** NAZIOARTEKOA

**+% 10,1** 2021arekiko

**38 M€** BESTE BATZUK

**-% 7,7** 2021arekiko

**% 2,08** I+Gko inbertsioa  
BPGd-arekiko

**+% 2,11** 2021ean

**-16pp** EB-27rekiko

**-16pp** 2021ean



# EAEko I+Gko inbertsioaren zenbatespena

2024ko martxoa



---

## Zenbatespenaren xehetasuna

---

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

**EAEko I+Gko inbertsioa % 6,4 haziko da 2024an eta, lehen aldiz, 2.000 M€-ko muga gaindituko du**

	<b>2022 errealak</b>	<b>2023 zenbatetsia</b>	<b>2024 zenbatetsia</b>
<b>Inbertsioa I+Gn (milioi €)</b>	<b>1.795 M€</b>	<b>1.944 M€</b>	<b>2.068 M€</b>
<b>Urtetik urterako aldakuntza (ehunekoa)</b>	<b>+% 9,0</b>	<b>+% 8,3</b>	<b>+% 6,4</b>

Iturria: Innobasquek zenbatetsitako datuak eta Eustaten datu errealak.

## Enpresen eta administrazio publikoen inbertsioek I+Gren hazkundera bultzatuko dute 2024an

	GUZTIRA	Enpresak	Administrazio publikoak	Nazioartekoa	Beste iturri batzuk
<b>Inbertsioa I+Gn 2024an</b> (milioi €)	<b>2.068 M€</b>	<b>1.151 M€</b>	<b>709 M€</b>	<b>167 M€</b>	<b>41 M€</b>
<b>Urtetik urterako aldaketa</b> (ehunekoa)	<b>+% 6,4</b>	<b>+% 6,4</b>	<b>+% 6,6</b>	<b>+% 6,5</b>	<b>+% 2,7</b>

**2024an EAEko I+G arloko inbertsioa 2.068 milioi eurokoa izango da eta % 6,4 haziko da 2023arekiko.**

Zehazki:

- 1.151 milioi euro EAEko enpresetatik etorriko dira; horien inbertsioa % 6,4 haziko dela zenbatestzen da.
- 709 milioi euro administrazio publikoetatik etorriko dira (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta Estatuko Administrazio Orokorra), eta horien inbertsioa % 6,6 haziko da, Eusko Jaurlaritzaren I+Gko eta berrikuntzako aurrekontuen % 6,5eko gehikuntzak eta NextGenerationEU funtsekin finantzatutako Ekonomia Suspertzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoekin lotutako egitasmoek bultzatuta.
- Gainerako inbertsioa nazioarteko finantzaketatik etorriko da (hazi egingo da, EAEko erakundeek Horizon Europa Esparru Programa berrian duten jardunbide egokiari esker), baita beste iturri batzuetatik ere, hala nola unibertsitateen funtsetatik edo irabazi-asmorik gabeko erakundeen dohaintzetatik.

Ondorengo orrialdeetan finantzaketa-iturri bakoitzaren kalkulua zer zenbatespenetan oinarritu den zehaztu da.

Iturria: Innobasquek zenbatetsitako datuak eta Eustaten datu errealak.

## Enpresek % 6,4 handituko dute 2024an I+Gra bideratutako inbertsioa

Kalkuluen arabera, enpresek I+Gko inbertsioak indartuko dituzte, % 6,4ko hazkundearekin, 2024an. Ondorioz, 1.151 milioi euroko inbertsio-bolumena kalkulatu da; hots, EAEko enpresa-finantzaketaren maximo historikoa.

	2022 errealak	2023 zenbatetsia	2024 zenbatetsia
<b>I+Gko enpresa-finantzaketa</b> (milioi €)	<b>1.004 M€</b>	<b>1.082 M€</b>	<b>1.151 M€</b>
<b>Urtetik urterako aldaketa</b> (ehunekoa)	<b>+% 7,6</b>	<b>+% 7,8</b>	<b>+% 6,4</b>

**I+Gko enpresa-finantzaketa** enpresek I+Gra bideratutako finantzaketari dagokio. Edozein tamaina eta jarduera-sektoretako (industria, zerbitzuak eta abar) konpainiak dira; nagusiki, pribatuak. Honako hauek biltzen ditu:

- Enpresek beren I+Gko barne-jarduera finantzatzeko erabiltzen dituzten funts propioak (langile-gastuak, zeharkako gastuak, kapital-gastuak eta abar).
- Hirugarren erakundeei I+Gko zerbitzuak azpikontratatzeko (kontratupeko I+G); hala nola, teknologia-zentroei, unibertsitateei eta beste enpresa batzuei.

## Finantzaketa publikoa % 6,6 haziko da 2024an eta 700 milioi euroko muga gaindituko du

I+Gko finantzaketa publikoaren igoera azkartu egingo da 2024an, % 6,6ko hazkundeari esker.

Bilakaera hori Eusko Jaurlaritzaren I+Gko eta berrikuntzako aurrekontuen % 6,5eko areagotzearen eta NextGenerationEU funtsekin finantzatutako Ekonomia Suspertzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoekin (ESEPE) lotutako egitasmoek bultzatuko dute; hala nola, Ibilgailu Elektriko eta Konektatuaren ESEPEa, Estatuko Administrazio Orokorraren bitartez bideratua.

	2022 errealia	2023 zenbatetsia	2024 zenbatetsia
<b>I+Gko enpresa-finantzaketa</b> (milioi €)	609 M€	666 M€	709 M€
<b>Urtetik urterako aldaketa</b> (ehunekoa)	+% 12,4	+% 9,3	+% 6,6

### **I+Gko finantzaketa publikoa administrazio publiko hauek I+Gra bideratutako funtsei dagokie:**

- Eusko Jaurlaritzaren (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; Hezkuntza Saila; Osasun Saila eta abar).
- Estatuko Administrazio Orokorra, I+Gra bideratutako NextGenerationEUren funts gehienak bideratuko dituena.
- Foru-aldundiak eta beste toki-administrazio batzuk.

### **Funts horiek honako hauek biltzen dituzte:**

- I+Gko jarduerak egiteko enpresei, teknologia-zentroei eta abarrei emandako dirulaguntzak;
- Unibertsitate eta ospitale publikoen I+G<sup>1</sup> alorrean diharduten langileen soldatak.
- Administrazio publikoek beren I+Gko barne-jarduera finantzatzeko erabiltzen dituzten funts propioak.
- Hirugarren erakundeei I+Gko zerbitzuak azpikontratatzeko (kontratupeko I+G).

(1) Irakasle-ikertzaileek eta medikuek I+Gra bideratzen duten kostuaren zati proportzionala kontabilizatu da, baita ikertzaileen kostu osoa ere.

Iturria: Innobasquek zenbatetsitako datuak eta Eustaten datu errealak.

## Nazioarteko finantzaketa hazi egingo da berriro ere 2024an

Kalkuluen arabera, nazioarteko finantzaketaren hazkundeak gora egingo du 2024an, EAEko erakundeek Horizon Europa Esparru Programa berrian duten jardunbide egokiari esker.

Gainerako funtsei dagokienez, horiek ere hazi egingo dira berriro.

		2022 errealak	2023 zenbatetsia	2024 zenbatetsia
I+Gko nazioarteko finantzaketa	Zenbatekoa	144 M€	157 M€	167 M€
	Urtetik urterako aldaketa	+% 10,1	+% 9,0	+% 6,5
I+Grako beste iturri batzuk	Zenbatekoa	38 M€	39 M€	41 M€
	Urtetik urterako aldaketa	-% 7,7	+% 2,5	+% 2,7

**I+Gko nazioarteko finantzaketa** kanpoko erakundeek, publikoek zein pribatuek, EAEn garatutako I+Gra bideratutako finantzaketari dagokio.

**Funts horiek honako hauek biltzen dituzte:**

- Nazioz gaindiko erakunde publikoek (adibidez, Europako Batzordeak Esparru Programaren bidez) edo atzerriko beste administrazio batzuek lurraldean I+Gko jarduerak egiteko emandako dirulaguntzak.
- Atzerriko erakundeek, batez ere enpresa pribatuek, I+Gko zerbitzuak azpikontratatzeari (kontratupeko I+G) lurraldean I+Gko jarduerak egiteko. Tokiko subsidiarioek egindako I+G finantzatzen duten atzerriko konpainia nagusiak izan daitezke.


**Beste iturri batzuen finantzaketan** sartzen dira goi-mailako irakaskuntzatik (funts propioak eta unibertsitate publiko eta pribatuen, unibertsitate horiei atxikitako ikerketa-zentroen eta goi-mailako lanbide-heziketako zentroen azpikontratazioak) eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetatik (adibidez, fundazioen dohaintzak) datozen funtsak.

## Zenbatespena doitzeko datuak

I+Gko inbertsio pribatuaren zenbatespena Innobasqueko 18 konpainia bazkideetatik jasotako datuekin doitu da. Konpainia horiek EAEko I+G arloko trakzio-enpresen taldea osatzen dute eta EAEko I+Grako enpresa-finantzaketaren % 40 inguru ordezkatzan dute.

Datu horiek BRTAko zentroek I+Gren ustiapenaren diru-sarreraren bilakaerari buruz emandako datuekin osatu dira, finantzaketa-iturriaren arabera.

### EAEKO I+GKO TRAKZIO-ENPRESEN TALDEA




Sektoreen ordezkartza zabala: metala, energia, garraioa eta farmazeutikoa.

I+Gko inbertsioa

**+% 6,9**  
2024

**+% 8,4**  
2023



BRTAk, bere aldetik, bere diru-sarreraren % 7,3ko hazkundera zenbatetsi du 2024rako, eta, zehazki, % 10ekoa EAEko bere diru-sarrera pribatueta eta % 5,8koa, nazioartekoetan.

# EAEko I+Gri buruzko diagnostikoa

# 02

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación



**Atal honek EAEko I+Gri buruzko diagnostiko zehatza du, Eustatek argitaratutako azken datuetan oinarritutakoa**

**Honako ondorio hauek nabarmentzekoak dira:**


- 1. EAEko I+Gko inbertsioa nabarmen hazi zen berriro ere 2022an (zehazki, % 9,0) eta 1.795 M€-ko maximo historikora iritsi zen.**
- 2. Dena dela, BPGd-arekiko I+Gko inbertsioa zertxobait jaitsi zen, % 2,11tik % 2,08ra, gehiago hazi zelako BPGd nominala.**
- 3. Hala eta guztiz ere, EAEk estatuko lidergoari eutsi zion, baita EBrekiko<sup>1</sup> bere kokapenari ere (haren I+Gko inbertsioa BPGd-arekiko % 2,27tik % 2,24ra jaitsi zen).**
- 4. Azpiegitura- eta ekipamendu-alorretako inbertsioak % 35 hazi ziren EAEn, Europako inbertsio-mailetatik hurbil.**

(1) Eurostatek, Europako Estatistika Agentziak, argitaratutako azken datuen arabera 2021ean Euskadiren inbertsioa I+Gn BPGarekiko % 2,32 izan zen, EB-27ko batez bestekoaren gainetik, urte horretan % 2,27koa izan baitzen.

5. | **Finantzaketa publikoa izan zen gehien hazi zen finantzazioa iturria, % 12,4-ko igoerarekin.**
6. | **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileak (teknologia-zentroak, ikerketa-zentro kooperatiboak, unibertsitateak eta BERC zentroak, bai eta osasun ikerketarako institutuak ere) izan ziren finantzaketaren gehikuntzaren onuradun nagusiak, % 10etik gorako hazkundera izan baitzuten.**
7. | **Enpresa-eremuan, I+G egiten duten konpainien inbertsio-intentsitatea handitzeak ekarri zuen hazkundera.**
8. | **Jarduera-sektorearen arabera, gehienek handitu zuten I+Gko beren inbertsio-maila. Ehuneko-hazkunde nagusiak eraikuntzan, metalurgian eta garraioarekin lotutako sektoreetan izan ziren.**

## EAEko I+Gko inbertsioa % 9 hazi zen 2022an eta 1.795 milioi euroko maximo historikora iritsi zen

I+Gko barne-gastua, EAEn (M€-tan; 2008-2022)




Iturria: Eustat.

# EAEk EB-27rekiko kokapenari eutsi zion, BPGd-arekiko I+Gko inbertsioari zegokionez, hura jaitsi zen arren

BPGd nominala gehiago hazi zelako jaitsi zen adierazle hori.

I+G arloko barne-gastua BPGd nominalarekiko (%; 2008-2022)



Iturria: Eustat eta Eurostat.

## Era berean, BPGd-arekiko inbertsio-maila handieneko autonomia-erkidegoa izaten jarraitu zuen

Hala ere, gainerako autonomia-erkidegoekiko bere pisua zertxobait jaitsi zen.


Autonomia-erkidegoa	I+G arloko barne-gastua/BPGd		I+G arloko barne-gastua (mila €)			Pisua	
	2021	2022	2021	2022	Eboluzioa	2021	2022
<b>GUZTIRA</b>	<b>% 1,41</b>	<b>% 1,44</b>	<b>17.249.250</b>	<b>19.324.755</b>	<b>+% 12,0</b>	<b>% 100,0</b>	<b>% 100,0</b>
EAE (INE)	% 2,31	% 2,23	1.666.672	1.772.820	+% 6,4	% 9,7	% 9,2
EAE (Eustat)	% 2,11	% 2,08	1.646.957	1.794.704	+% 9,0	% 9,5	% 9,3
Madril	% 1,91	% 1,96	4.538.085	5.130.046	+% 13,0	% 26,3	% 26,5
Katalunia	% 1,76	% 1,89	4.083.036	4.827.232	+% 18,2	% 23,7	% 25,0
Nafarroa	% 1,90	% 1,81	390.206	409.931	+% 5,1	% 2,3	% 2,1
Gaztela eta Leon	% 1,34	% 1,35	795.932	866.999	+% 8,9	% 4,6	% 4,5
Valentziako Erkidegoa	% 1,18	% 1,17	1.354.194	1.485.293	+% 9,7	% 7,9	% 7,7
Murtzia	% 1,07	% 1,08	351.429	387.214	+% 10,2	% 2,0	% 2,0
Galizia	% 1,09	% 1,08	694.942	751.045	+% 8,1	% 4,0	% 3,9
Aragoi	% 1,01	% 1,07	386.939	447.121	+% 15,6	% 2,2	% 2,3
Andaluzia	% 1,04	% 1,05	1.702.682	1.890.566	+% 11,0	% 9,9	% 9,8
Kantabria	% 0,95	% 0,90	133.210	138.479	+% 4,0	% 0,8	% 0,7
Errioxa	% 0,75	% 0,87	64.987	82.328	+% 26,7	% 0,4	% 0,4
Asturias	% 0,87	% 0,84	204.327	217.867	+% 6,6	% 1,2	% 1,1
Extremadura	% 0,72	% 0,70	149.078	158.054	+% 6,0	% 0,9	% 0,8
Gaztela-Mantxa	% 0,79	% 0,67	339.734	313.897	-% 7,6	% 2,0	% 1,6
Kanariak	% 0,56	% 0,55	238.542	271.596	+% 13,9	% 1,4	% 1,4
Balear Uharteak	% 0,49	% 0,46	146.044	164.211	+% 12,4	% 0,8	% 0,8
Ceuta eta Melilla	% 0,27	% 0,27	9.209	10.056	+% 9,2	% 0,1	% 0,1

Eustaten eta INEren datuen arteko diferentzia EAERI emandako BPGd-aren balioarekin lotuta dago gehienbat.

2022an, INEren arabera, 79.350 milioi eurokoa zen eta Eustaten arabera, aldiz, 86.266 milioi eurokoa.


# 2022an nabarmentzekoa da azpiegitura eta ekipamenduetan egindako inbertsioen % 35eko hazkundera, Europako mailetatik hurbil

I+Gko barne-gastua, gastu-motaren arabera, EAEn (milioi €; 2008-2022)




I+Gko barne-gastuaren egitura, gastu-motaren arabera (%; 2008-2022)<sup>1</sup>

(1) Ez dago EB-27ren 2008ko eta 2022ko daturik.



Iturria: Eustat eta Eurostat.

# Enpresek jarraitu zuten EAEn funts gehien ematen eta gauzatzen




(1) Administrazio publikoen finantzaketan ez dira sartzen beste laguntza mota batzuk, hala nola, kenkari fiskalak eta I+G egiteko maileguak.


(2) «Beste iturri batzuk» kontzeptuak ondorengoak barne hartzen ditu: goi-mailako irakaskuntzaren finantzaketa (batez ere, unibertsitateen funts propioak) eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuena. Iturria: Eustat.

# Funtsen jatorriari dagokionez, finantzaketa publikoak eta nazioartekoak izan zuten ehuneko-hazkunderik handiena: zehazki, % 12,4 eta % 10,1, hurrenez hurren

Funtsen jatorriaren araberako I+G arloko barne-gastua<sup>1</sup>  
(M€-tan; 2008-2022)



I+G arloko barne-gastuaren finantzaketaren urtetik urterako aldaketa (%; 2020-2022)




(1) «Beste iturri batzuk» kontzeptuak ondorengoak barne hartzen ditu: goi-mailako irakaskuntzaren finantzaketa (batez ere, unibertsitateen funts propioak) eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuena. Iturria: Eustat.




# Gauzatze-sektoreari dagokionez, denek handitu zuten beren jarduera; bereziki, ZTBES-ko eragileen protagonismo handia dutenek

I+Gko barne-gastua, gauzatze-sektorearen arabera, EAEn (M€-tan; 2008-2022)



I+Gko barne-gastuaren urtetik urterako aldaketa, gauzatze-sektorearen arabera (%; 2020-2022)




Iturria: Eustat.


# Enpresa-eremuan, lehendik ere I+Gn aktiboak ziren enpresek bultzatu dute bilakaera hori

Intentsitateari dagokionez, nabarmentzekoa da enpresa handiek eta enpresen I+Gko unitateek I+Gn izandako jardueraren hazkundera.

I+G arloan aktiboak diren EAEko enpresak, tamainaren arabera (kopurua; 2018-2022)




I+Gko inbertsioa, enpresa eta tamainaren arabera (k€; 2018-2022)



Iturria: Eustat.

# Sektore gehienek handitu zuten I+Gko beren jarduera 2021arekiko

Enpresek I+G arloan egindako barne-gastuaren azterketa, jarduera-sektorearen arabera



- Energia; nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza; erauzte-industriak
- Manufaktura-industria
- Eraikuntza
- Zerbitzuak

**I+Gren bolumena**  
(Esferaren tamainak sektorearen I+G bolumena adierazten du)

Iturria: Eustat.

Eranskinak


03

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

## Zenbatespen-ereduari buruzko azalpena

Innobasqueren eredia EAeko I+Grako aurrekontuetatik abiatzen da, enpresen finantzaketaren hazkundera eta, ondoren, EAek I+Gn dagokion urtean eta ondorengoan izango duen barne-gastua zenbatesteko. Ereduaren emaitzak bat datoz EAeko I+G arloko trakzio-enpresen talde batek eta BRTAk emandako aurreikuspenekin.



## Ereduaren sendotasuna

	2019	2020	2021	2022
Zenbatetsitako datua	1.514 M€	1.576 M€	1.627 M€	1.768 M€
Datu errealak	1.481 M€	1.490 M€	1.647 M€	1.795 M€
Zenbatespen-errorea	+% 2,2	+% 5,5	-% 1,2	-% 1,5


Eredua tresna eraginkorra da, eta agerian utzi du bere balioa.




**PANDEMIA IRITSI  
ZEN URTEA**

# I+Gko finantzaketa-egitura

I+G arloko finantzaketa-egitura EAEn  
(%; 2008-2022)



I+G arloko finantzaketa-egitura EB-27n<sup>1</sup>  
(%; 2008-2021)




Iturria: Eustat eta Eurostat.


(1) Ez dago finantzaketa publikoari buruzko 2015eko daturik, ezta EB-27ren 2022ko daturik ere

# I+Gko gauzatze-egitura

I+Gren gauzatze-egitura<sup>1</sup> EAEn  
(%; 2008-2022)



I+Gren gauzatze-egitura EB-27n  
(%; 2008-2022)



(1) EAEn, teknologia-zentroak eta ikerketa-zentro kooperatiboak erakunde pribatuak dira; Europako beren homologoak, aitzitik, oro har, administrazio publikoen sektorekoak izan ohi dira. Iturria: Eustat eta Eurostat.





Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea  
Laida Bidea, 203 | 48170 Zamudio

T. +34 944 209 488 | [innobasque@innobasque.eus](mailto:innobasque@innobasque.eus)

[www.innobasque.eus](http://www.innobasque.eus)